


Euskal AEko eraikuntza kostuak %0,3 jaitsi ziren 2012ko azaroan aurreko hilaren aldean

Azken hamabi hilabeteetan (2012ko azaroa, 2011koarekin alderatuta), eraikuntzaren kostuak %0,3 gehitu ziren.

2012ko azaroan, Euskal AEko Eraikuntzaren Kostuen Indizea %0,3 jaitsi zen, aurreko hilaren aldean, eta urte arteko tasa %0,3 igo, EUSTATen datuen arabera.

Abenduko urte arteko aldakuntza-tasak. 2006-2012



(*) Gehikuntza azaroko urte artekoa da
Iturria: EUSTAT. Euskal AEko eraikuntzaren Kostuen Indizea

2012ko azaroan, lan-eskuaren kostua ez da aldatu (%0,0); lehengaien kostuak, berriz, %0,4 jaitsi dira.

Azaroan Etxegintza eta Obra Zibila azpisektoreek beheranzko bilakaera izan zuten lehengaien kostuari dagokionez. Etxegintzan %0,3ko jaitsiera aurreko hilaren aldean, eta Obra Zibilarenean %1ekoa. Bi azpisektore hauen urte arteko bilakaerak igoera apalak erakusten ditu. Etxegintzako lehengaien kostuak %0,1 igo dira eta Obra Zibilekoenak %0,2.

Sektorean kontsumitu diren lehengaien prezioari dagokionez, azken hamabi hilabeteetan inflazio-tasa handienak izan dituztenen artean, Petrolio-fintzea (%2,6), Energia elektrikoa eta gasa (%6,6), Makineria (%6,0) eta Material elektrikoa (%2,6) nabarmentzen dira, besteren artean. Berriz, urteko prezioetan (2012ko azaroa 2011koaren aldean) jaitsierak izan dituzte ondoko sektoreetako lehengaiak: Metalurgia (%-3,6), Ez-metalezko mineralak (%-2).

**ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. EUSKAL AE. 2012KO AZAROA.
BEHIN-BEHINEKO DATUAK**

GOIBURUAK	INDIZEA 2005 = 100 Oinarria	ALDEAREN %		
		Aurreko hilaren aldean	Aurreko urteko hil beraren aldean	Aurreko abenduaren aldean
KOSTUA GUZTIRA	120,2	-0,3	0,3	-0,3
ERAIKINAK	119,1	-0,2	0,3	-0,3
OBRA ZIBILA	124,4	-0,7	0,4	0,0
LEHENGAIEN KOSTUA	119,2	-0,4	0,1	-0,6
ERAIKINAK	117,8	-0,3	0,1	-0,7
OBRA ZIBILA	124,5	-1,0	0,2	-0,4
LAN-ESKUAREN KOSTUA	124,1	0,0	1,0	1,0

Iturria: EUSTAT. Euskal Aeko eraikuntzaren kostuen indizea

Argibide gehiagorako:

[Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Helbide elektronikoa: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel.: +34-945-01 75 06 Faxe: +34-945-01 75 01

Euskal AEko Eraikuntzako Kostuen Indizeari buruzko prentsa-ohar gehiago.

Euskal AEko Eraikuntzako Kostuen Indizeari buruzko datu-bankua.